



Herri-izarrak
ez dira itzaltzen

itsasondoko2.0

herriko aldizkaria 60. zk (uztaila 2025)

- ▶ **Astebete mugikor gabe, herriko gazteen esperientzia.**
- ▶ **Euskara ikasteko aukerarik ez da falta.**
- ▶ **Itsasondoko ur kontsumoa aztergai.**

03	Udaleko berriak
04	Haurreskola
05-09	Eskola
10-11	Guraso elkarteak
12-13	Hitzar
14-15	Altxaburua
16	Motzean: Ainhoa Martin
17-19	Udal balorazioa
20-21	Euskara
22	Natura
23-27	Elkarrizketa: Erramun Amundarain
28-29	Gazteria
30-33	Hemeroteka
34	Liburutegia / Errezeta
35	Euskara
36	Agenda

Sarrerako bertsoak

Gure urtea

Lehenengo egunen
tristuraz jota bai.
Jolas eta lagunak
hantxe zeuden nonahi.

Eskola txiki denen
eguna Tolosan.
Azkeneko orduan
musika ta dantzan.

Irteera askotan
primeran pasatzen.
Zarautzen hasi ginen
gu denok gozatzen.

LH guztia
Deban surf egiten.
Ta bukatu genuen
izozkia jaten.

Gabonetan eskolan
oparik jasotzeen.
Santo Tomas egunen
txistorra bai jaten.

Pala festa osoan
palakin jolasten.
Partidak egin eta
pelotai ematen.

Urte ederra izan da
zuekin batera.
Urkipez udan ere
gogorauko gera.



Iritsi da ekaina, eta ekainarekin batera, ikasturte amaiera eta udako oporrak. Urte osoan gogor lan egin ostean, merezitako atseden garaia askorentzat. Giro eguzkituan, *Itsasondoko 2.0* aldizkaria hartu, eta itzaletan zein eguzkitan irakurtzen egotea aukera ederra izan daiteke. Mamitsu dator urteko bigarren aldizkaria.

Opor usainean daude asko eta asko. Horren aitzakian, oporren onurak zeintzuk diren gogoratu dituzte Itturri Txiki Guraso elkarteak langunek.

Baina oporrak merezitakoak izateko, aurrez lan egitea komeni izaten da. Urkipe Herri Eskolako ikasleek bada-kite zerbait horri buruz. Ikasle eta irakasleek amaitu dute aurtengo ikasturtea, jaialdi ederrarekin amaitu ere. Baina urte osoan askotariko proiektuak eta lanketak egiten aritu dira. Uraren kontsumoaren inguruko azterketa egin dute, besteak beste. Azterketak eman dituen emaitzen berri eman dute eskolako atalean. Eta haurtzaindegitik iazko zein hurrengo ikasturteari begirako datuak eman dituzte.

Gailu elektronikoen inguruko erabileraren hausnarke-ta gero eta presenteago dago egungo gizartean, eta Altxa Burua elkarteak horretan dihardu. Herriko gazteen espe-rientzia partekatu nahi izan dute herritarrekin.

Gailu elektronikoen gaia ez da, baina, gazteria arloan lantzen den gai bakarra. Urteko plana egin ohi da ikastur-te hasierarekin batera, eta ikasturtea amaitu den honetan, ekintza planaren balorazioa egin da.

Eta errepassoekin jarraituz, Iñaki Aizpuru alkateak ere legealdiko errepassoa egin du, alkate kargua hartu zuenetik bi urte betetzen diren honetan. 2023ko ekainean izendatu zuten alkate, eta orain arte egindakoak aipatu ditu eta etor-kizuneko asmoen berri eman du elkarrizketa mamitsuan.

Aldizkariko beste protagonista bat Erramun Amundara-in itsasondarra da. Nork ez du Erramun ezagutzen? Eza-gunetan ezagunena. Haurtzaroko kontuak, zaletasunak eta bizi osoan egindako lana kontatu ditu, xehe-xehe. Eta modu laburragoan bada ere, bere jaioterria itzultzeko arrazoien eta bere zaletasun berri emango ditu Ainhoa Martinek, elkarrizketa laburrean.

Itzalaldiaren inguruan hausnartzeko gakoak eman ditu Hitzar energia komunitateak bere artikuluan, eta urteko batzarraren berri ere eman du. Naturaren hondamendiaren inguruko datuak biltzen dira, berriaz, Naturaren atalean.

Aipatu berri diren gai horiez gain, herrian egindako ekintzen errepassoa jaso dugu Hemeroteka atalean; maia-tzean egin zen Euskaraldiaren inguruko kronika ere bertan irakurri ahalko duzue, besteak beste. Datozen hilabeteetan herrian izango diren ekintzen berri ere aurkituko duzue Agenda atalean. Euskara ikasteko ikastaroen gaineko infor-mazioa, euskararen atala, liburutegiaren txokoa eta errezeta ere irakurgai izango ditu herritarrak.

Bada, beraz, denbora non pasa. Hartu aldizkaria lasai, pasa orrialdez orrialde, eta gozatu! Uda ona pasa!

Itsasondoko udalak badu idazkari berria

2022ko abenduan Belen Mendizabalek, idazkariak, erretiroa hartu zuen. Ordudanik, 2024ko uztaila arte, Maite Lasak, udaleko administrariak, bete zuen idazkaritza lanpostua. Orain, lanpostua betetzeko hautaketa prozesua egin da eta **Aritz Insausti Zeberio izango da Itsasondo, Altzaga eta Aramako udalerriek osatzen duten udal elkarteko idazkaria**. Ongi etorri Aritz!



Udala idazkari gabe egon den denboran ahal den neurrian erantzun zaie suertaturiko hainbat lan administratiboei eta zenbait erabaki udalbatzan hartzea beharrezkoa denez, Ezkio-Itsasoko idazkari den Martin Iparragirrerren laguntzarekin udalbatzak burutu ziren, hiru herritan.

Itsasondon, maiatzaren 28an, egindako udalbatzan hainbat gai onartu ziren:

Aurreko osoko bilkuraren akta onartu zen, ohi bezala. Hainbat gastuei aurre egiteko kreditu aldaketak egin ziren, batez ere eskola berrirako sarrerako lanak direla eta behar den kopurua izateko dagokion aurrekontuan eta obrak hasi ahal izateko.

Iazko azaroan onartu zen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoan aldaketa batzuk egin ziren Hizkuntza Politika Sailak eginda eta berriz onartu zen, aldaketa hauek jasota.

Alkateari hainbat eskumen laga zitzaizkion ere, hala nola; etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Itsasondoko Udalaren arteko hitzarmena sinatzeko.

Goierri barnetik gobernantza-sistema berria egituratzeko hitzarmenaren onespeneren inguruko

berri ematea egin zen ere. Goiekik Oiangualdearen urbanizazio lanak finantzatzeko ekarpen berezia egiteko eskaera ere aztertu eta onartu zen, Goiekiko partaide izanik, hirigintza ekarpenak ezinbestekoak direlako.

2025eko lan eskaintza onartu zen ere plantilla aldaketa onartzearekin batera eta Gazteria Kulturako teknikariaren lanposturako oinarriak onartu ziren.

Azkenik, Kaxintane tabernako lizitazioa berrira begira pleguak onartu ziren.

Udalbatza amaitzeko Palestinaren aldeko mozioa onartu zen eta alkatetzako ebazpenen berri eman zen, galdera eta iradokizunei tartea eskainiz.

Ikasturte amaiera

Iritsi gara ikasturteko azken txanpara. Aurten 17 haur izan ditugu guztira: 7 haur 0-1 gelan eta 10 haur 1-2 gelan. Hezitzaile kopuruari dagokionez, 4 egon gara, lanaldi osoan.

2024 eta 2025 urtean jaiotako haurrentzat izen ematea

Doakoa

HAURRESKOLAK PARTZUERGEOA

Iraillean hasteko
Apirilaren 22tik maiatzaren 9ra

Ikasturtean zehar
Hilaren 1etik 10era (irailetik apirilera)
* Salbuespenak: abenduak, martxoak eta apirilak

→ Hurrez aurre Haurreskolan
→ Online

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Derrigorrezkoa

- Erregistro zibileko inskripzioaren fotokopia edo familia liburu (haurra eta aita/ama edo lege tutorearen datuak aurkeztu behar dira)
- Hauraren aita, ama edo lege tutorearen NANaren fotokopia (AIT atzerriarrek izanez gero), NAN edo AIT agintirik ez izanez gero, Pasaportea
- Urtebete baino gutxiagoko haurren kasuan jaiotzagatik edo adingabearen zaintzagatik presiazioaren gaineko Gizarte Segurantzaren ebazpena edo enpresa ziurtagiri eguneratua* (Prestazioa jasotzeko baldintzak betetzen ez diren kasuetan, lan bizieta eguneratua* aurkeztu beharko da)

Barematzeko (hautatzeko)

- Haurreskolarekiko erlazioa (onai-arrebaren bat bertan matrikulatuta izatea)
- Bizilekuaren edo kontakaren gertutasuna
- Lan-egonera
- Familia-unitatearen 2023 urteko enpresa
- Desagotutasuna
- Genero-indarkeraren biktima
- Familia ugariako kidea edo guraso bakarreko familia izatea
- Terrorismoaren biktima
- Harroa familia

- Lehen aldiz sartzen den haur orok 10 lan egunetako egokitzera-epaia bete beharko du.
- Hasieta-datan ez da atzerapenik onartuko
- Haurreskolan hasteko haurrek 16 aste beteak izan behar dituzte
- Jaiotze-erregistroa ezin dira inskribatu
- Ez dira plazaak gordetako
- Haurreskolaz aldatzeko matrikula berria egin beharko da

Haurreskolak Partzuergoak onartze arauelagian zehaztutako irizpideak eta epeak jarraituko dira

www.haurreskolak.eus
- Informazio orokorra
- Gurasoak atsegin

Gelak

Haurren gehieneko kopurua

0 urteko gela:	8
1 urtekoen gela:	13
0 eta 1 urteko haurren taldekatzea:	10

* Eguneratuak kontsideratuko dira baldin eta dokumentuaren data eta aurkezte dataren artean 3 hilabete baino gehiago pasatu ez badira

Ordutegia

Gelak	Egun osokoa
7:30tik 14:00ra	7:30etatik 16:00ak arte
Sarrerako-irteerak	Sarrerako-irteerak
7:30-9:30 eta 12:30-14:00	7:30-9:30 eta 15:00-16:00

* Ikasturteko egutegia haurreskola bakoitzaren kontsultatu

Datorren ikasturtea irailaren 4an hasiko da, eta haurreskola 07:30etik 16:00etara egongo da irekita. Haurreskolak doakoa izaten jarraituko du, eta dagoeneko hamalau izen-emate ditugu (oraindik behin betiko matrikulazioa baieztatu gabe). Iraillean jakingo dugu benetan zenbat hurrekin hasiko garen, haurren kopuruaren arabera zenbat hezitzaile hasiko garen lanean eta zenbat plaza geratuko diren kurtsoan zehar haurrak matrikulatzeko. Haurrak iraillean hasteko, matrikulatze aldia, martxotik apirilera izan zen. Behin matrikulatze aldia itxita, haurrak ezingo dira urrira arte hasi. Beraz, beste haurren bat matrikulatu nahi bada, irailaren 1etik 10era egin beharko da matrikulazioa. Horretarako izen-emate orria eta beharrezko dokumentazioa haurreskolan entregatu behar dira. Horrez gain, badago ikasturtean zehar matrikulatzeko aukera, eta, hilero, hilaren 1etik 10era bitartean egin

daitekeela matrikula, beti ere, hurrengo hilabetean hasteko. Hau da: urriaren 1etik 10era matrikulatzen denak azaroaren 1ean hasi ahalko luke.

Gogoratu, egokitzapen prozesua betetzea beharrezkoa dela: umea hasten den egunetik 10 lan egun izango lirateke.


Azkenik, azpimarratu nahi dugu gure haurreskolaren helburua eguneroko esperientzien eta bizi-penen bidez autonomian hezteko aukera ematea dela, eta baita umeek bizitzan agertuko zaizkien erronkak ebazteko estrategiak barneratu eta esku-ratzea ere.

Zalantzak argitzeko edo informazio gehiago eskuratzeko:

☎ **943164831 Itsasondoko haurreskola.**

✉ **itsasondo.itsasondo@haurreskolak.eus.**

📍 **Goiko kale 8 behe, 20249 Itsasondo.**



Itsasondoko uraren kontsumoaren azterketa

Kaixo!

Urkiye Herri eskolako Lehen Hezkuntzako
4-5-6. mailako ikasleak gara.

Aurten, Itsasondoko uraren kontsumoaren inguruko azterketa bat egin dugu eta beharrezkoa iruditzen zaigu zuei partekatzea. Azterketa hau uraren kontsumoaren inguruan landu dugun proiektuaren barruan egin dugu.

Hasieran, uraren ziklo naturala lantzen ibili ginen, hori ongi landutakoan, uraren ziklo artifizialarekin jarraitu genuen eta hortan Jexux Mari eta Danel brigadako langileek lagundu ziguten. Ondoren, Legorretako hondakinen araztegira irteera egin genuen. Gero, Itsasondoko uraren kontsumoaren azterketa zientifikoari ekin genion. Horretarako, lehenengo galdetegi batzuk sortu genituen eta Itsasondon etxez etxe banatu genituen. Erantzunak jasotzeko kuxkak jarri

genituen Kaxintane tabernan eta lbalur herriko dendan.

Galdetegia 30 familiak erantzun zutela konturatu ginen, eta haietan oinarritutako datuak aztertu, grafikoak egin, ondorioak atera eta aldizkarirako artikulua sortzeari ekin genion. Badakigu datu hauek ez direla guztiz esanguratsuak, baina hala ere ltsa-sondoko errealitatearen zati dira.

Eskola mailan dekalogo bat sortu dugu, ahalik eta ur gutxien kontsumitzeko. Horrez gain, ekainean egin genuen udal foroan eskaera txiki batzuk egin dizkiogu Udalari herri mailan uraren kontsumoa jaisteko. Guk ere, eskola moduan, konpromiso batzuk hartu ditugu.


Aurrez aipatutako moduan, hemen dituzue 30 familiek erantzundako galdetegiaren emaitzak.



HERRITARREI GALDERAK


1. Zuen etxean nola garbitzen dituzue ontziak?

- A) Ontzi garbigailuarekin
- B) Eskuz
- C) Biak
- D) Gehiago:




2. Ontziak eskuz garbitzerakoan txorrota ixten duzu(e)?

- A) Beti
- B) Batzuetan
- C) Inoiz ez
- D) Gehiago:




3. Ontzi garbigailua zein programetan jartzen duzue?

- A) Eco
- B) Denbora gutxien irauten duena
- C) Denbora gehien irauten duena
- D) Gehiago:



4. Zein ur erabiltzen duzue etxeetan edateko?


- A) Botilako ura
- B) Beitiko iturrikoa
- C) Etxeko txorrotatik
- D) Gehiago:






5. Egunean zenbat aldiz jartzen duzue ontzi garbigailua?

- A) Inoiz ez
- B) Behin edo bitan
- C) Hiru aldiz baino gehiago
- D) Gehiago:




6. Dutxan zaudeten bitartean txorrota ixten duzu(e)?

- A) Beti
- B) Batzuetan
- C) Inoiz ez
- D) Gehiago:




7. Herriko txorrotak erabiltzeko orduan nola jokatzten duzue?

- A) Behin zapaltzen dut
- B) Zapalduta eusten diot
- C) Behin baino gehiagotan zapaltzen dut
- D) Gehiago:



8. Komuneko bonba nola erabiltzen duzue?


- A) Botoi handia / Luzea
- B) Botoi txikia / Motza
- C) Biak batera
- D) Gehiago:






9. Eskuak eta hortzak garbitzerakoan txorrota ixten duzue?

- A) Beti
- B) Batzuetan
- C) Inoiz ez
- D) Gehiago:




10. Astean zenbat aldiz jartzen duzue arropa garbigailua?

- A) 1-2 aldiz
- B) 2-3 aldiz
- C) 3 aldiz baino gehiago
- D) Gehiago:



11. Nola aurreztuko daiteke ur gehiago?

- Ur beroa berehala irtengo balitz
- Dutzako denbora gutxiagotuta
- Dutzan eta sukaldean txorrota zainduta
- Etxeko kaniletan filtroak jartzen
- Iturriak maizago itxita
- Erabiltzen dugun ura murriztuz
- Dutzan kanilla itxi beharko nuke, baina batez ere neguan



Eskolan hartuko ditugun konpromisoak:

- Txorrita guztien ondoan erabilera egokirako kartelak jarri ditugu.
- Eskolako baratzerako euri ura jasoko dugu.
- Eskolako gainontzeko ikasleentzat bideo bat egingo dugu informazioa zabaltzeko.
- Uraren erabilera egokirako dekalogoak sortu eta zabaltzea.

Udalari egingo dizkiogun eskaerak:

- Hoditeri sisteman galtzen den uraren datuak herritarroi zabaltzea.
- Uraren erabileraren inguruko kontzientziazio kanpainekin jarraitzea.

Uraren erabilera egokirako dekalogoak:

- Eskuak eta hortzak garbitzerakoan txorrita itxiko dugu.
- Dutxa motza egingo dugu eta xaboia ematen ari garen bitartean txorrita itxiko dugu.
- Komuneko bonba zapaltzerakoan beharren arabera jokatu dugu.

- Ontzi garbigailua bete ondoren denbora gutxien irauten duen programan edo eko programan jarriko dugu.
- Arropa garbigailua beteta dagoenean eta ahalik eta gutxien erabiliko dugu.
- Herriko iturriko botoia behar dugunean bakarrik eta behin zapalduko dugu.
- Etxean gauden bitartean ura aurrezten saiatuko gara.
- Zaborrak zaborrontzira bota eta sailkatu egingo ditugu. Ez ditugu komunitik behe- ra botako.
- Dutxan erortzen diren ileak ere zaborretara botako ditugu.
- Kontuan izango dugu kalean botatako zaborra ere arketetatik behera joan daitekeela, eta hondakinen araztegia amaitu edota naturan kalte egin dezakeela.

Oporrak: errutinatik atera eta abentura berrietara!

Oporrak iristen direnean, haurrentzako errutinatik ateratzea eta esperientzia berriak bizitzea oso garrantzitsua da. Eskola-garaian ohiko ordutegi eta jarduerak egitura bat eskaintzen dieten arren, oporrek aukera paregabea ematen diete sormena garatzeko, mundua esploratzeko eta gauza berriak ikasteko, dena modu dibertigarri eta lasai batean. Gainera, horretarako ez dago diru asko gastatu beharrik!



ZERGATIK DA HAIN GARRANTZITSUA ERRUTINATIK ATERATZEA?

- **Sormena suspertu:** Errutinatik kanpo, haurrek irudimena gehiago erabiltzen dute. Joko berriak asmatzen dituzte, arazoei irtenbide originalak bilatzen dizkiete eta ingurunearekin modu desberdinetan elkarreragiten dute.
- **Ikaskuntza esperimental:** Liburuetatik edo eskolan ikasitakoaz gain, oporretan esperimentatuz ikasten dute. Naturan denbora pasatzeak, adibidez, ekologiak eta inguruneaz jabetzen laguntzen die.

- **Emozioak kudeatu:** Errutinaren hausturak malgutasuna eta egoera berrietara egokitze gaitasuna garatzen laguntzen die. Emozio ugari bizitzen dituzte eta horiek kudeatzen ikasten dute.
- **Familia-loturak sendotu:** Oporrak familia gisa denbora pasatzeko eta elkarrekin oroitzapen ahaztezinak sortzeko aukera paregabea dira. Jarduera bateratuek lotura emozionalak sendotzen dituzte.
- **Estresa murriztu:** Eskolako presioetatik eta ordutegi finkoetatik urruntzeak estresa murrizten laguntzen die, haurrei lasai egoteko eta energia berreskuratzeko aukera emanez.





JARDUERA DIBERTIGARRIAK DIRU GUTXIREKIN

Ez da beharrezkoa urrutira joatea edo diru asko gastatzea oporrak ahaztezinak izan daitezen. Hona hemen ideia batzuk:

Natura esploratu:

- **Mendiko ibilaldiak edo parke naturaletara bisitak:** Euskal Herrian bazter eder asko ditugu. Fauna eta flora ezagutu, arbolak identifikatu edo hostoak eta loreak bildu, bilduma bat egiteko.
- **Hondartzara edo ibaira joan:** Hareazko gazteluak eraiki, harriak margotu edo uretako jolasak egin.
- **Piknik bat prestatu:** Janaria etxetik eraman eta aire librean bazkaldu edo askaldu, abentura txiki bihurtuz.

Sormena garatu:

- **Eskulanak eta birziklapena:** Etxean dituzuen materialekin (kartoiak, botilak, tapoiak, etab.) panpinak, robotak edo beste edozein gauza sortu. Sormenak ez du mugarik!
- **Marratzu eta margotu:** Papera eta koloreak baino ez dira behar irudimenak hegan egiteko.
- **Istorioak asmatu:** Elkarrekin ipuinak idatzi edo ahoz kontatu. Pertsonaiak asmatu, abenturak sortu eta irudimena libre utzi.

Jolas tradizionalak eta kirola:

- **Parkean jolastu:** Kulunkan ibili, txirristan jaitsi, pilotan jokatu edo harrapaketan aritu.
- **Mahai-jolasak edo karta-jokoak.** Familia gisa elkarrekin pasatzeko modu bikaina.
- **Bizikletan ibili:** Haurrentzako oso osasungarria eta dibertigarria da.

Kultura eta komunitatea:

- **Herriko jaiak edo ekitaldiak:** Udako hila-beteetan, herri askotan doako jarduerak eta festak antolatzen dira. Bertako giroa eta kultura ezagutzeko aukera paregabea.
- **Sukaldean aritu elkarrekin:** Haurrei sukaldean parte hartzeak trebetasun berriak ikasten eta erantzukizunak hartzen laguntzen die. Errezetak aukeratu, osagaiak prestatu eta plater sinpleak egin.

Oporrak ez dira helmuga exotikoetara bidaiatzeko bakarrik. Aukera bat dira haurrak errutinatik atera eta beren ingurunea beste modu batera ikusten laguntzeko. Abentura bakoitza, txikia izan arren, ikaskuntza bat da, eta esperientzia berri bakoitzak haurren garapenari laguntzen dio. Beraz, anima zaitezte udako opor hauetan sormena eta abentura lehenesteko, diru asko gastatu gabe!

Itzalaldi bat, piztu beharreko hausnarketa bat

.....

Apirilaren 28ko itzalaldi orokorrak agerian utzi du zein hauskorra den gure energia-sistemaren egitura zentralizatua.

Sarearen puntu bakarreko arazo batek milioika herritar argindarrik gabe utzi zituen, denbora laburrean. Zer gertatuko litzateke halako gorabehera bat egun oso batean luzatuko balitz? Edo behin eta berriz errepikatuko balitz?

.....



Hitzar energia komunitatean argi dugu: **energia burujabetza ez da utopia bat, premia baizik**. Gertatutakoak berresten digu ez gaudela bidetik urrunduta, bide egokian goazela baizik. Goierrin energia burujabetza landu nahi dugun honetan, itzalaldi honek aukera eskaintzen digu gogoeta egiteko eta gure bidean bultzada berri bat hartzeko.

Zentralizazioaren arriskua ez da abstrakzio bat: egoera horietan tokiko energia ekoizpena eta banaketa dira benetako bermea. Energia komunitateek aukera ematen digute energia sortu, banatu eta kudeatzeko gure beharren arabera, inguruan ditugun baliabide naturalak modu arduratsuan baliatuz eta kanpoko gorabeheren menpeko izateari utziz. Hori guztia **elkarlanaren bidez**, herritarren ekimena eta konfiantza oinarri hartuta.

Antonio Turielek dioten bezala, *"energia sistemaren egungo ereduak ez da jasangarria; ezin dugu infinituki hazten jarraitu, baliabide mugatueta oinarrituta."* Hori dela eta, garrantzitsua da tokiko alternatibak eraikitzea, eta kontzientzia hartzea: **energia ez da soilik teknologia kontua; antolaketa soziala, balioak eta lehentasunak daude energia-kudeaketaren atzean.**

Goierrigintza bezalako egitasmoek aukera ematen dute esperientziak partekatze, egitasmoak konektatzeko eta Goierrin osoan norabide bere-tsuari lan egiteko: gure herrien etorkizun energetikoa gure esku hartzeko.

Itzalaldiak argitu digu: gure etorkizun energetikoak norabide berriak eskatzen ditu, eta bide horretan ari gara. Eguzkia dugu, konpromisoa ere bai, eta elkarlana izango da piztuta mantenduko gaituen energia nagusia.



2025eko Batzar Nagusia

Maiatzaren 27an egin genuen Hitzar energia komunitatearen urteko Batzar Nagusia. 82 bazkide-tatik 22k parte hartu genuen, eta urteko kontuak azaldu eta aho batez onartu ostean, 2024ko jarduerak laburbildu eta hurrengo urteei begira jarri ginen.

Datozen urteetarako 2 erronka nagusi ezarri ditugu:

- **GOIERRIGINTZAREKIN JARRAITU eta inguruko herrien babesa eta bazkidetza lortzea.**

Erronka estrategikoa da, eskualde arteko sareak indartzeko eta mugimendua zabaltzeko.

- **PROIEKTU BERRIAK garatzen eta aztertzen segitzea.**

Energia burujabetzara eramango gaituzten bestelako proiektuak ere identifikatu eta aztertzea.

– Auzo-herri gunerako instalazio berriak. Industriagunetako instalazio aukerak.

– Beste teknologia edo sistema batzuk kontuan hartzea: adibidez, **energia aurrezpena, bateriak, birgaitzeak, mugikortasuna...**

LUKASAIN, eguzkia partekatzen hasi gara

Ekaineko eguzkiarekin batera hasiko da Lukasaingo instalazioa energia sortzen, eta, horrekin batera, Itsasondo eta Ordiziako 58 herritar beren energia autokontsumitzen hasiko gara. Energia autokontsumoa ez da etorkizuna, oraina da; eta Lukasaingo proiektuari esker, hainbat herritarren esku jarri dugu energia-beharrianak asetzeko gaitasuna.

Etxeetara iristen zaigun energiaren jatorria, sarritan, ezkutukoa da: urrutikoa, izenik gabea. Orain, ordean, jatorria ezagutzen dugu, eta izena jarri diogu: Lukasain. **Energia gertutik, etxe barrura heltzen denean, eguneroko ohiturek bestelako erritmo bat hartzen dute.**



Mugikorrik gabe astebetez

Joan den martxoan Itsasondoko lau gaztek No phone challenge egitasmoarekin bat eginda astebete mugikorrik gabe bizitzeko erabakia hartu zuten. Gaur egungo gizarte “hiperkonektatu” honetan bizi garenean, zergatiaz eta bizipenez hitz egiteko bildu gara berriketaldi batean Nahia, Oihan, Haizea eta Pablarekin.

Nondik etorri zaizue proposamena?

Haizea: Eskolan, tutoretza saioetan sare sozialak zenbat erabiltzen ditugun lantzen ari ginen eta mobilekiko dugun dependentziaren gaia atera zen. Mugikor gabe bizitzea zer izango litzatekeen landu genuen, eta proba hori egiten zuten pertsonen buruzko dokumental bat ikusi genuen. Hor sortu zen erronka, zergatik ez dugu guk ere egiten? Orduan serioago antolatzen hasi ziren eta nahi zutenek parte hartu zezaketen; ikasle zein irakasle. Astebetez mobila eskolan utzi dugu kaxa batean, eta bi aukera zeuden: astelehenetik ostiralera han uztea, edo asteburua ere barneratzea.

Zein aukeratu duzue?

N: Pablo, Haizea eta hirurok asteburua barne duena.

Oihan: Nik ostiralera artekoa.

Zerk animatu zaituzte parte hartzera?

N: Nik badakit mugikorrarekiko dependentzia dudala, eta nire burua proban jarri nahi izan nuen. Eta lagunek ere egingo zutela ikusita, errazago animatu nintzen.

H: Zure ingurukoek ere egiteak laguntzen du.

Asteburuetako planetarako baldintzatzen al zizuen?

Pablo: Lagunekin geratzeko normalean telefonotik egiten dugu.

N: Hori bakarrik ez; entrenamenduko taldeak ere baditugu, eta entrenatzaileak abisuak

whatsappez ematen ditu. Nire ama ere taldean sartuta dago, eta horri esker lasai nengoen. Asteburu hartan justu Seguran atera ginen parrandan eta mobil gabe, lagunekin moldatu ginen. Galduz gero non dauden jakiteko, eskerrak beti norbait topatzen duzun.

Zeintzuk izan dira parte hartzeko baldintzak?

O: Astebetez telefonoa kutxan uztea. Ez zegoen gehiagorik.

P: Nik, adibidez, telebista ez ikustea ere erabaki nuen.

H: Eskolako lanak egiteko bakarrik erabiltzen nuen ordenagailua.

N: Nik telebista Conquis ikusteko pizten nuen.

O: Nik mugikorrik gabe egon nintzen soilik; playean jolasten nintzen. Erronka, berez, mugikor gabe egotea zen bakarrik.

H: Hortik aurrerakoa bakoitzak nahi zuenaren arabera zen.

Nolako esperientzia izan da eta zer eragin dizue?

H: Greba egun dezenteko astea tokatu zitzaigun, eta goi-

zak luze egiten zitzaizkidan. Liburuak irakurri eta irakurri.

P: Lehenengo egunetan mugikorra poltsikoetan bilatzen egoten nintzen, baina gero ohitu egiten zara.

H: Erlojurik ez dut eta mobilik gabe ez nekien zein ordu zen ere...

N: Niri, aldiz, lehenengo egunetan mugikor gabe egoteak lasaitasuna eman zidan eta azkeneko egunak zailagoak egin zitzaizkidan; asteburua zen eta aspertuta nengoen, ez nekien zer egin. Baina, adibidez, egiten ez nituen gauzak egitera bultzatu ninduen, korri egitera edo mendira joatea, kozinatzea...

H: Mobil gabe egotean denbora gehiago duzula ohartu naiz. Bazkal ondoren telefonoa hartu eta denbora joan egiten zaizu, baina mugikor gabe egon naizenean, eguna uste duguna baino luzeagoa dela konturatu naiz. Liberazio moduko bat izan da, besteei begira ez egoteak lasaitasuna ematen du.

O: Bai, nik ere gauza bera sumatu dut.

N: Niri entrenamenduetan elkarriketetatik kanpo nengoenaren sentsazioa ematen zidan, hau eta beste publikatu dute eta zuk ez zenekien ezer ere ez. Hori sumatu nuen, baina lasaitasun sentsazioa ere bai.

Zer espero zenuten, eta benetan zer izan da?

O: Nik telefonoaren falta sumatu nuela uste nuen eta gero ez zen horrela izan.

N: Nik gogorragoa izango zela uste nuen.

H: Telefonorik gabe nola moldatuko nintzen beldur nintzen. Beasainera trenez joan, ordutegiak begiratu, entrenamenduak... whatsapp talde



guztietan abisatu nuen telefonorik gabe egongo nintzela, garrantzitsuak zirenei etxeko telefonoa eman nien eta kitto. Moldatzeko zailtasunak izango nituela uste nuen, baina nahi izanez gero, posible da.

Zuen gurasoek zer zioten?

P: Nire gurasoek proba egitera animatu ninduten, esaten zuten bestela beraiek kenduko zidatela telefonoa! Eskerrak argi nuen parte hartuko nuela.

N: Gurasoak ondo, animatu ninduten. Anaia harrituta geratu zen erabat. Beraiek telefonoa normal erabiltzen jarraitu zuten eta orduan ohartu nintzen zenbat erabiltzen dugun edo duten. Sofan eseri eta telebista ikustean ere telefonoekin egoten zirela edo ginela, okerreña da ni ere horrela egoten naizela; kontziente egin nintzen.

Zuen bizi ohituretan aldaketarik egin duzue?

O: Ez, mugikorra beti bezala erabiltzen jarraitu dut.

P: Ezta nik ere. Mugikorra berriro hartu genuenean lehenengo egunetan gutxiago erabiltzen nuela konturatu nintzen, baina gero beti bezala erabiltzen jarraitu dut.

N: Nik ere beti bezala erabiltzen dut, mugikorra ez erabiltzeak gehiago iraungo zidala uste nuen.

Telefonoa beti bezala erabiltzeak erronkak ezertarako balio izan ez duen sentsazioa ematen dizue?

P: Ez, erronka pentsatzeko zen.

H: Niri hausnartzeko balio izan dit gehiago, ohiturak hartzeko baino.

N: Mugikor gabe astebete, hilabete... egoteko gai garela ohartzeko balio izan digu.

O: Mugikorrean pasatzen dugun denboraz kontzienteagoak gara orain.

Zein ondorio atera dituzue?

H: Ekimenean parte hartu genuen guztiek gauza bera esan genuen: kanpotik ikustean, mundu guztia mugikorrarekin dagoela konturatzen zara. Trenean, adibidez, mundu guztiak du eskutan telefonoa eta behe- ra begira doa.

N: Telefonorik gabe zoazenean konturatzen zara zu ere horrela joan ohi zarela.

H: Aipatu genuen beste puntu bat eta denak bat gentozena izan da gazteei esaten zaigula sekulako menpekotasuna dugula mobilarekiko, baina helduek ere sekulakoa dutela.

Erronka Itsasondoko herritarrek (gazte, heldu zein nagusiek) egiteko modukoa iruditzen zaizue? Zergatik?

P: Nire ustez, bai. Esperientzia bizitzea polita litzateke, herri osoa batera.

N: Nik ere proposatuko nuke. Horrela adin tarte guztietan nola eragiten duen ikusiko genuke, ez baita gauza bera gazte batengan eragiten duena edo helduagoengan.

H: Nik ere egingo nuke, gaur egun denerako erabiltzen duguetan. Itsasondo, helduko al diogu erronkari?

Ainhoa Martin

.....
Bi urte beteko dira laster
Itsasondon bizi denetik.
Herri bizitza du gustuko.
.....



Noiz etorri zinen Itsasondora bizitzera?

2023ko irailean etorri nintzen, nire senar Enrike eta seme Unaxekin.

Non bizi zinen lehen?

Idiazabalen eta Ordizian.

Zergatik erabaki zenuen Itsasondora etortzea?

Ni jaiotzez Itsasondokoa naiz, bizitzak ekarri gaitu berriro nire jaioterrira.

Zer gogoratzen duzu etorri zinen lehen egun hartatik?

Lehenengo egunetan etxeko isiltasuna, lasaitasuna...

Zer lanbide duzu?

Adimen urritasuna duten pertsonekin egiten dut lan.

Itsasondotik zer ez zaizu gustatzen?

Akatsak ateratzea edo gustoko ez duguna esatea oso erraza da, ez ordea konponbideak bilatzea, beraz...

Itsasondotik zer gustatzen zaizu?

Frontoia eta bere inguruneak duen bizia. Herri lasaia da, baina era berean ekintza mota ugari eskaintzen du. Jende gazte ekintzaile asko dago.

Zer zaletasun dituzu?

Askok baina denbora gutxi... gaur egun mendiko ibilaldiez gozatzen dut txakurrarekin. Familia eta lagun artean goxo egotea ere gustukoa dut.

Janaririk gogokoena?

Amak prestatzen duen olagarroa galiziar erara.

Edaririk gogokoena?

Ebakia baileys ttantta batzuekin.

Gogoko duzun Itsasondoko edo Goierriko leku bat?

Goierritik Lazkaomendi. Itsasondotik, Urkiko bidea, Mendibil baserritik pasatzen dena.

Zerk sortzen dizu irribarrea?

Nire aitaren bihurrikeriek.

Itsasondon biziko ez bazina, non biziko zinateke?

Lazkaomendi, Ordizia, Galizia... auskalo! Ondo egonda edozein lekutan.



Iñaki Aizpuru, alkatea

**“Etorkizunik izango badugu,
denon artekoa eta denontzat
defendatzearen aldetik etorriko dela
pentsatzen dut”**

.....

Bi urte igaro dira, Iñaki Aizpuruk alkate makila hartu zuenetik. Urte hauetan guztietan, herriaren eta herritarren ongizatea izan du iparrorratz agintean den udal taldeak, eta herriaren bizitzan eragiten duten hamaika proiektu abiatu dituzte, helburu hori bete asmoz. Egindakoaz eta egiteke geratzen denaz hausnartu du Aizpuruk.

.....

Bi urte bete berri dira kargua hartu zenuenetik. Egin duzu legealdi erdia. Gustura?

Urteak gero eta bizkorrago joaten dira, konturatzerako; bi hauek eta aurreko laurak ere ezin berriz harrapatu. Baina tira, gustura bai, lehen hasitako proiektu batzuk gauzatzen doazelako eta beste batzuk, berriz, martxa hartzen.

Hala ere, alkatea herritarren aginduetara dagoen taldearen ordezkaria besterik ez da. Eta alde horretatik esan gustura hartzeko modukoa dela udalean daukagun ekipoarekin lan egitea.

Orain arte egindakoaren zer balorazio egiten duzu?

Eguneroko lanez gain, asko sufritzen da proiektuak zenbat luzatzen diren ikusita. Egin nahi eta ezin hori. Baina alferri da. Lortutakoa eskertu, eta aurrera begiratzea besterik ez zaigu geratzen.

Udalak beti beste administrazioen menpe baitaude, eta herri txikitari zer esanik ez, beti eskean ibili behar: Aldundiari, batzuetan; Jaurilaritzari, bestetan. Orain arte, behintzat, aski ongi moldatu gara. Neketsua da hala ere.

Zein proiektu edo egindako zein lan azpimarratuko zenituzke?

Asko da egin den lana, baina bistakoenak dira: Hitzar energia komunitateak hartu duen martxa, ireki berria dugun denda (Ibalur), edo pixka bat lehenago moldatu zen jolas parkea. Goierriko baserrietara sareko ur hornidura berria ere aurreratuta dago, eta eskola berriko obrak nahi bezain pronto ez, baina aurki hasiko dira.

Baina ez dira obrak bakarrik, jauzi handia egin da herri mailan ospatzen diren era guztietako ekimenetan, gazteentzako, adinduentzako egiten diren era guztietako ekintzetan: musika, antzerkia, liburuak, solasaldiak, pintxo-poteak eta beste. Ikusi besterik ez dago udalak duen telegram kanalak zer martxa hartu duen, azken urte hauetan eman den aurrerapausoaz konturatzeke.

Non izan duzu buruhauste gehien?

Baliabide gutxiarekin gauza asko egin nahia izaten da gure akats nabarmenena, eta hortik datoz estuasun handienak. Argitaratzen diren diru laguntza deialdi guztietara apuntatzen gara, eta nahiko lan izaten dugu eskatzen duten moduan justifikatzeko garraian.

Udal txikien aurrekontu arrunta eskasa da, eta arlo guztietan: euskara, kultura, ume eta nerabeen ekimenak, eskola, parkeak, basoak, urak, bideak, mediku kontsulta, ongizatea... Beste administrazioen laguntzen menpe gaude beti.

Pozak edo albiste onak ere jasoko zenituen...

Bai, dudarik ez. Zerbait lortzen denean, poza berekin dakar, baina lortu ahal izateko bidea luze egiten da. Posible egin duten guztiei eskerrak eman ahal izatea da poza handienetakoa.

Eskolako gaia herritar askori kezkatzen dien gaia da. Berria egiten ikusiko ote dugu laster?

Azkenean, bai, kostata, baina aurki hasiko dira. Jaurilaritzarekin egindako hitzarmenean, udalak eskola berriko sarreraren obrak egiteko konpromisoa hartu zuen, eta, luze joan den

prozesu baten ondoren, Tesinsa enpresari esleitu zaio obra, 281.954,21€-ko aurrekontuarekin. Uztailean zehar hastekotan dira.

Eusko Jaurilaritzak bere aldetik obren esleipen prozesua burutu du, eta udalak hasten duen obrari jarraipena emateko moduan izango direla agindu digute.

Etxebizitzaren gaia ere pil-pilean dagoen gaia da. Ezer egin ote daiteke jendea herritik joan ez dadin?

Itsasondoren etxebizitza proiektuaren ezaugarriak eta erabilera motak zein diren, eta, bide batez, honek herritarren etxebizitza beharrak asetzeko eskaintzen dituen aukerak eta mugak jakiteko azterketa bat egin berria dugu. Ondorioen artean irten da hurrengo 15 urteetan Itsasondoko bizikidetzak unitateak %13,9 inguru haziko direla: 251 bizikidetzak unitate izatetik 286 bizikidetzak unitate izatera; 35 bat etxebizitza gehiagoren beharra izango dela, alegia.

Aurreko legealdian Ibarre eta Etxeberrri inguruko lurretan erai-ki zitezkeen etxebizitzak aurrera eramateko esperantza izan da, dauden baldintzengatik. Orain, eskola berriko obrak lagun, buelta guztian dituen terreno horietan behar diren etxebizitzak eraikitzeke behar den arau urbanistikoen aldaketari ekingo diogu, behar horiei ahal den azkarren aurre egiteko.

Ongizate arlotik ere lanketa handia egiten ari da udal taldea?

Bai, zalaparta handirik gabe joan ohi diren lanak dira horiek, eta azaltzea komeni da hortan



ari direnez gain besteok ere jabetu gaitzen. Mutur txiki bat aipatzearren, esan Itsasondon dugun atzerritarren tasa 2000 urtean %0,5 izatetik 2024 urtean %16,8 izatera igo dela. Al-daketa honek era askotako ondorioak eta beharrak dakartza, baina bat aipatzekotan, emakume migranteek duten egoera zaurgarria da. Alde horretatik, herritar talde bat eta Ongizate batzordea egiten ari den borondatezko lanketa izugarria eskertzea dagokigu.

Legealdia amaitzeko geratzen zaizkizun bi urte hauetan zein proiektu gauzatzea espero duzu? Non jarriko duzue indarra?

Eskola berria izango da hurrengo urteetan gauzatu beharreko proiektu garrantzitsuenak. Eta horrekin batera, etxebizitza berrien eraiketa ahalbidetzea. Bi arlo horietan aurreratzen badugu, majo ibiliko gara. Legealdia pozik amaitzeko moduan izango gara, asmo horiek burutzen baditugu.

Beti esan izan duzue udala herria dela eta udala herritarrek

egiten dutela. Nola parte har dezakete herritarrek?

Itsasondoko herritarrek hiru lan talde osatzen dituzte, eta hiruren artean herri mailan egin beharrekoak bideratzen dituzte. Ongizate taldea saiatzan da gizarte justuagoa, bidezkoagoa eta inklusiboagoa lortzen; lurralde antolaketa batzordeak hiri-gintza eta ingurumenarekin du lotura; eta herri bizitzak denon artean egin ditzakegun jardueratzen arduratzen da: ekitaldiak, solasaldiak, festak, eta abar. Hiruretako edozeinetan parte hartzeko gonbita egiten da, herritar ororen ideiak, iritziak eta aportazioak aberasgarriagoak direlako beti.

Baina ez da hor bukatzen herritarren lana. Gurasoek, jubilatuek, gazteek, kirolariek... talde bakoitzak ditu bere elkarteak eta intereseko zaizkien gaiak jorratzen dituzte, herriko dinamizakari bultzada handia emanez.

Nola animatuko zenituzke herritarrek parte har dezaten?

Norberaren konpromisoa bada ere, nik esan dezakedana da helburu altruistak xede izanik

elkarrekin lanean aritzeak poztasun handiak ematen dituela; frogatzeko aukera baten eskaintza den honetan, zalantzarik ez izateko eta parte hartzeko.

Azkenik, nola ikusten duzu herriaren etorkizuna? Nola iruditzen duzu?

Aipatu ez dudana ekimen bat erabiliko dut adibide bezala. Duela 200 bat urte, orduko udalak bere mendi guztiak saldu zituen. Gaurko beharrak beste batzuk direnez, saldutako horiek berreroen ari gara orain, denonak izan daitezkeen berriro. Bihar zer izango den ez nuke asmatuko, baina etorkizunik izango badugu, denon artekoa eta denontzat, publikoa, defendatzearen aldetik etorriko dela pentsatzen dut.

Nolako herria nahiko zenuke?

Aldaketak aldaketa, herri-sena mantentzea izango litzake ezinbesteko baldintza bakarra. Garai batean ezagutu genuen Itsasondo ez da gaurkoa, eta ez da, segur aski, biharkoa izango, baina herri izaera mantentzen den bitartean, elkarrekin ondo bizitzeko moduan jarraituko dugu.

APROPIE-TE DE LIMBA BASCĂ! CURS DE LIMBA BASCĂ PENTRU PĂRINȚI

La școală, în timpul orelor de școală
Cursuri practice
Înțelege și începe să vorbești!
GRATUIT

DOAN
GRATIS
GRATUIT

باسکے قریبجائیں!

والدینکے لیے باسکی کورس - مفت - اسکولمیں،
اسکولکے اوقاتمیں - عملیکورسز - سمجھیں اور
بولنا شروع کریں!

**AKSIL CI EUSKERA!
JANGUM EUSKERA NGIR
WAAJUR YI.**

Ci daara bi say dom'yi di jangge, ci waxtu
yi'ñuy jang.
Degël, tambali wax.
AMUL FEY

**¡ACÉRCATE
AL EUSKERA!**

Curso de euskara para madres y padres.
En la escuela, en horas escolares.
Cursos prácticos.
¡Entiende, y empieza a hablar!
GRATIS

**GET CLOSER
TO BASQUE!**

Euskara ikasteko gurasoentzako ikastaroak

Dakizuen moduan, Itsasondon 'Euskara eta kulturartekotasuna' proiektua garatzen ari gara. Bada, proiektua martxan dagoen herrietan, gurasoek euskara ikasteko ikastaro berezi bat jarriko da martxan datorren ikasturtean.

AEK-k metodologia berezi bat landu du ikastaro hauetarako, eta doan izango da, Itsasondoko Udalak finantzatzeko du ikastaroa. Maiatzaren 30ean prentsaurreko baten bidez, AEK-k eta UEMAK egitasmoaren berri eman zuten. Hementxe duzue ikastaroei buruzko informazioa, zalantzarik izanez gero udaletxean eta eskolan galdetuko dezakezue.

Zer?

Euskaraz ez dakiten gurasoentzako behe mailako ikastaro praktikoa. Gurasoen komunikazio beharretara egokitua, ahozketasuna oinarri izango duen metodologiarekin.

Noiz?

2025-2026 ikasturtean.

Nola?

- Haurrak eskolan diren bitartean, ikastetxean bertan.
- Astean bi saio, bina ordukoak.

Zenbat orduz?

125 ordu.

Zein da taldea eratzeko gutxiengo kopurua?

5.000 biztanletik beherako udalerrietan, 6 ikasle.

Parte hartuko duzu?

Hementxe duzu izena emateko aukera: labur.eus/etorriEUS



Euskaraldia

.....
Maiatzaren 15etik 25era bitarte egin genuen ariketa soziala baloratzeko momentua iritsi da. Dakizuen bezala, Itsasondo, Arama eta Altzagak batzordea sortu zuten Euskaraldia dela eta.
.....

Ekintza berriak proposatu baino aurrez zehaztuak zeudenez baliatzea eta bertan zabalkunde lana egitea erabaki zen batzordean. Horrez gain, izen ematearen zabalkundea egin genuen hainbat bitartekoren: aldizkaria, pantailak, telegrama... Horrela bada, 156 itsasondoarrek eman zuten izena Euskaraldian.

Aipatu bezala, orain, balorazio egiteko garaia da eta Euskaralditik hainbat alderdi baloratu nahi izan dira:

- Ariketaren ezaugarri orokorrak (egunak, garaia, rola, adina)
- Izen-emate prozesua nola joan den, Herri batzordeen

egoera nolakoa den (antolaketa, tenpusak, lan karga, osasuna...)

- Entitateen koordinazioa eta sustapena nola egin den, lanketa arina eta sakonaren planteamendu berriaren balorazioa.
- Komunikazioa eta prestakuntza (ariketaren ikusgarritasuna, prestakuntza materiala...)
- Euskaraldiko Intraneta eta baliabideen erabilgarritasuna.
- Euskaraldia lantaldearekiko koordinazioa, sustapen lana, komunikazioa...
- Ekintzen antolaketa herrietan. Erabilera eta parte hartzea sustatzeko eta girotzeko baliagarritasuna, besteak beste.

Oraindik balorazio orokor bat egin ez den arren, herrietako batzordeak hasi dira dinamika baloratzen. Itsasondo, Arama eta Altzagako batzordea Euskaraldiko balorazio orokorra egiten denean bilduko da, ikuspegi zabalago batez ariketa baloratu eta gura ekartzeko asmoz. Dena den, orokorrean ariketa bera ondo baloratu den arren, bereziki aurrera begirako pausoetan jarri nahi dugu indarra: euskara ikasteko dirulaguntzetan sakontzen, mintzalagun taldeak indartzen, gurasoentzako ikastaroak eskaintzen...

Hemen dituzue Euskaraldian zehar aterako hainbat talde argazki.



Natura gureganatuz

.....
Europar Batasuneko (EB) natura larriki degradatzen ari da. Espezien populazioak eta beraien eremu naturalak murrizten eta degradatzen ari dira, eta horrek ondorio larriak eragiten dizkie pertsonei eta planetari.
.....

Hainbat faktore ari dira presioa eragiten ekosistemetan eta espezien populazioetan; besteak beste, kutsadura, klima-aldaketa, habitatak galtzea, espezie inbadi-tzaileak...

Ahalegin eta hobekuntza txiki batzuk gorabehera, Europako Ingurumen Agentziak berriki egindako ebaluazioak egoera kezkarria erakusten du. Biodibertsitatearen galera geldiarazteko, berotze globala arintzeko eta landa- eta hiri-eremuen epe luzerako bideragarritasuna mantentzeko premiazko ekintzak jarri behar dira martxan.

Europar Batasuneko Natura Berrezartzeko Legea Europako Kontseiluan onartu zen iaz. Lege horren asmoa EB trantsizio ekologikorako bidean jartzeta da, hemendik 2050era neutraltasun klimatikoa lortzeko azken helburuarekin.

Legearen xedea da EBko lehorreko eta itsasoko eremuen % 20 gutxienez lehengoratzeko bidean jartzea hemendik 2030era.

Lehorreko ekosistemetan, itsasokoetan, hirikoetan eta ur gezakoetan natura lehengoratzeko helburu eta betebeharrak ezartzen ditu, juridikoki lotesleak.

Egoera txarrean dauden habitatei dagokienez, estatu kideek neurriak hartu beharko dituzte hobetzeko: gutxienez % 30 2030erako; % 60 2040rako; eta % 90 2050erako.

Itsasondan ere habitat horietako 11 ditugu eta ari gara, poliki-poliki, 2030erako helmuga horretara lanak eginda iristeko lehian. Udalak, mendiko lursailak publiko bihurtzeko ahaleginetan, 200 hektarea erosi ditu (udalerriaren % 22) eta lur publikoak lehengoratzeko bideratzen saiatzen ari da.

Izan ere, ez zaigu komeni ahaztea natura gure salbamendua dela, baina hondatzen ari garel.

Erramun Amundarain

1951ko urtarrilaren 17an jaio zen, San Anton egunean.

Bixente eta Manoliren semea. Zazpi senideetan bosgarrena. Lukusin eta Iolia-tik eratorria. Nahiz eta baserrikoa ez izan, baserri giroan ibilitakoa. Eta, noski, beti landa inguruan.

Noiz joan zinen Ordiziara?

1979an. Ezkondu, eta lana Beasainen nuenez, Ordizian bizitzea erabaki genuen, aukera gehiago genituela eta. Pisu bat alokatu genuen. Baina kostatu egiten da herri txiki batetik handira joatea, hori bai. Kontuan izanda gu hemen, Itsasondon, jende gutxi ginela, eta denok ezagunak, aitona-amonak, eta zentro sozial garrantzitsuak genituela, Ibarre eta Estankoa... (barreak). Oraindik zenbait lekutan gogoratzen dituzte leku horiek.

Hautzaroa Itsasondon egin zenuen?

9 urterekin San Kramentinoetara joan nintzen. Ordura arte herriko eskolan.

Komunio txikia egindakoan La Sallera joan nintzen. Gure arazoa hizkuntza izan zen, ez genuen menperatzen gaztelera, eta dena buruz ikasi behar. Hemen Itsasondon eroso sentitu nintzen, lasaiago.

Itsasondon Nazionaletan ere gaztelaniaz ikasiko zenuten ba?

Bai, baina Ordizian desberdina zen dena. Ordizian gogorragoa izan zen egoera. Niretzat behintzat hala izan zen.

Zer dela eta aldaketa hori? Zergatik ez zenuen Itsasondoko eskolan jarraitu?

Ni San Juanen bizi nintzenez, ba beno... agian itxuraz Ordiziako La Salle hobea izan zitekeelakoan hara bidali ninduten.

Baduzu eskolako anekdotaren bat?

Eskola txikian Ana Mari zen gure andereñoa. Idatzi zure abizena,

esaten zidan. Nik "Amudarain", eta buruan kolpea. Behin eta berriro. Eta ez zidan esaten 'n' letra falta zela... Ikasi arte zenbat eta zenbat kolpe hartu nituen!

Sakramentinoetan zer adin arte egin zinen?

19 urteak bete arte. Garai hartan normala zen ikasketak hasi eta bideratu arte leku berean jarraitzea; Batxilergoa eta unibertsitateko sarrera egin nituen bertan. Gero Deustoko unibertsitatean egin nituen ikasketak. Zazpi anaia-arreba ginen, eta batek izan ezik beste guztiok egin genituen unibertsitate ikasketak.

Eta zer ikasi zenuen?

Filosofia eta lettrak, Historian eta Geografian lizentziatua. Eta garai hartan soldaduska ere egin nuen, marinan. Biak ahal bezala uztartuz, 7 urtetan egin nituen soldaduska eta ikasketak.

Marina non izan zinen?

Azken urtean Franco zaintzea egokitu zitzaigun Donostian. 1973an izan zen Donostiara etorri zen azken urtea eta hura zaintzea egokitu zitzaigun. Itsasontzietan urpekariak ekarri eta lau orduz behin uretan murgiltzen ginen ea bonbarik zegoen ikusteko. Eta hurrengo urtean, 1974an, Juan Carlos zaintzen egon ginen, Pasaian.

Marinan zer ikasi zenuen?

Alferkeria, lasai ibili ginen eta 22 urterekin joan nintzen eta marinel guztiek 18 urte zituzten, ni baino gazteagoak ziren. Ni nintzen "nagusia". Konturatu nintzen gu nola bizi ginen eta beste batzuek zer aukera gutxi dituzten bizitzan. Asko eta asko analfabetoak ziren, gogorra.

Hori ikusteak zer pentsatua ematen dizu.

Egun batean hemengo alkateak gutun bat bidali zuen ni lizentziatzeko eguna eskatzeko. Eta nire komandantea harrituta: "Nor da ba alkatea?" Eta "Luis Ibarrekkoa" nik. Uztailaren 10ean edo 11n etxera joan eta lizentziatzeko esan zidan.

Bezperan edo bi egun lehenago soldadu bat negarrez ikusi nuen. Gerturatu nintzen ea zer gertatzen zitzaion jakiteko. Ordura arte homosexualitatea gai zki ikusita zegoen. Esan zidan homosexuala izanda soldaduskan ondo egon zela eta herrira joandakoan guztiek barre egingo ziotela.

Egoera gogorrek bizitzeko edo errealitatea ezagutzeko balio izan zidan soldaduskak.

Zenbat urterekin bukatu zenuen soldaduska? Eta gero?

26 urterekin edo. Lizeoan hasi nintzen lanean irakasle, Beasainen. Nik kontratua karrera bukatu baino lehen sinatu nuen, izan ere, ez zegoen ikasgaia euskaraz emateko gai zen irakaslerik. Ikastolako aurreneko promozioa izango zenarekin hasi nintzen lanean, batxilergoan. Eta gero 1982an Goierri Eskolan hasi nintzen.

Zer erakusten zenuen?

Historia eta geografia batez ere. Tarteka euskara eta gaztelania ere bai.

Irakasle moduan itsasondarren artean fama ona izan duzula esaten da.

Bai, ni ondo konpondu izan naiz beti ikasleekin. Nik uste dut filosofia berezi bat jarraitu dudala. Eskola ez da fisika, matemati-

ka... bakarrik. Momentu honetan afektibitate arazo handiak dau eta horretan ardura erakutsiz gero ikasleek asko eskertzen dute. Ikasleen egoera emozionala aintzat hartzea ezinbestekoa da.

Anekdotaren bat baduzu horrekin lotuta?

Gogoratzen dut behin ikasturte hasieran irteera bat antolatu genuela, Pasaiako portura. Ibarako mutil bat gerturatu zitzaidan eta kantatzeko eskatu zidan, nik kantatzeko eta berak jarraituko ninduela. Mutil hark 18 urterekin Euskadi Gaztea Saria irabazi zuen. Eta nik gurasoei eskolara etortzeko eskatu nien. Bilbora edo musika ikas zezakeen lekuren batetara bideratzeko esan nien, fenomeno hutsa baitzen musikan.

Zenbat urte Goierri Eskolan?

29 urte. Era guztietako ikasleak ezagutu ditut eta eboluzio guztia ikusi dut.

Anekdotak asko ditut. Behin bidaia batetarako dirua lortzeko jardinerak egin genituen, loreak jartzeko. 130 edo egin genituen, eta 170 saldu! Bizkor batean irailean jardinerak egin behar. Txapelketak ere antolatzen genituen. Denetik. 1987 edo 1988 urtean egin genituen lehen txapelketak eta 400 sarrera saltzeko baimena genuen. 500 eta piko saldu genituen. Moldatu ginen.

Ezaguna zara mila saltsatan ibili zarelako. Zer dela eta?

Guri txiki-txikitatik erakutsi digute balore garrantzitsua dela lana. Herrigintza. Orduan, beti lanean, saltsan. Transmisio hori jaso dugu.



Cangas de Onisen oporretan.



Loiolan udaberri hasieran.



Santiago egunean errondailarekin.



Asturiasen oporretan.

Soldaduskan hasi nintzen sukaldean. Han ere prestatzen nizkien bazkariak kideei. Eta ikasten ibili nintzenean ere bai, pisukideei. Ni sukaldaria izaten nintzen, beste batzuek fregatu egiten zuten... Pisuko gastuak ere kontrolatzen genituen eta 500 pezetarekin egiten genituen erosketa guztiak. Ohitura horiek aldatu egin direla uste dut. Deustura iritsi eta aste bete igaro aurretik sartua nengoen batzaldian eta saltsa guztietan. Hasieran ezer gutxi nekien, eta gero informazioa biltzen joan nintzen, gaztea nintzen eta. Euskara klaseak ematen edo jaialdietan parte hartzen; esandakoa, saltsa guztietan. Garai

hartan bizitza soziala oso aberatsa zen, 70eko hamarkadan. Beti kalean! Nik uste dut etxera goizeko ordu bata baino lehenago ez ginela inoiz joaten.

Herri askotan ikusi zaitugu sukaldari. Kirol festak, herri bazkariak... antolatzen.

Bai, bai. Horrelakoak eta gehiago, egia esan. Adibidez, BECen ere izan naiz pare bat aldiz bertsolari txapelketako finaleko bazkaria jartzen. Hango baldintzetan... ene! 700 pertsonarentzat edo prestatu genuen bazkaria. Langileentzat, bertsolarientzat... Guretzako erronka handia izan zen, protokolo guztiak zuzen jarraitu, azkar zerbitzatu... baina satisfazio handia. Eta janaria

Eusko Labelekoa, noski.

Eta nondik datorkizu sukalderako zaletasuna?

Soldaduskatik. Eta etxetik ere bai, noski. Larunbatetan 20 lagun edo elkartzen ginen etxean. Eta azkenean amari esan beharra izan nion elkartearen elkartzea izango zela egokiena, soziedadean. Eta nik lagundu. Eta gero poliki-poliki herri bazkariak eta denetik.

Eta, adibidez, irakasle eta tutore nintzenean, nire ikasleak San Juan Bosko egunean elkartera eramaten nituen. Eta formal ibiltzen ziren bertan, beste lekuetan baino formalago.

Eta zenbat jatordu eman dituzula kalkulatzen duzu?

Urtean 5.000 jatordu bai. Iparra Hegoan bakarrik 1.000tik gora. Itsasondon, Zaldibian, Beasainen, Ordizian.... Pentsa!

Baduzu jatordu kutunik?

Niri beti Zaldibia asko gustatu izan zait. Normalean herri guztietan lanerako neskak egoten dira beti prest, mutilak gutxiago. Eta Zaldibian denetik. Ez dakit zergatik, baina Zaldibiara joatea beti gustatu izan zait. Mutil asko ez dira saltsa haue-tan sartzen, eta ez dut ulertzen zergatik. Adibidez, musika eskolan ari naiz ikasten. Aurreko batean afaria egin genuen, eta 23 emakume eta 4 gizonezko bildu ginen. Zera esan nahi dut, uste dut orokorrean gaur egun boluntariotza galtzen ari dela. Arazoak daude gauzak antolatzeraokan herri eta leku guztietan.

Jendeak uste du herrigintza lana dela, eta ez da lana. Eta harremanak egiteko ere zailtasun gehiago dituzte gazteek gaur egun. Nik herrigintzan jende asko ezagutu dut, adin guztietakoa, oso aberasgarria da.

Gure garaian poteoan 16-17 urterekin 40 urteko jendearekin ateratzen ginen. Eta jende asko ezagutzen genuen horrela. Ora-in ez dago belaunaldien arteko harremanik, edo galtzen ari da.

Eta zergatik gertatzen da hau?

Telefonoek eta pantailek min handia egin dute. Eta jendearekin egotea, harremanak izatea, oso garrantzitsua da.

Iparra Hegoako antolaketan ere ibili zara.

Bai. Duela 30 urte edo hasi ziren antolatzen. Segurakoak Baztan-darren Biltzarrean elkartu ziren behin haiekin eta antolatzen hasi. Eta ni, sukaldari. Nik nor-

malean festa disfrutatu beharrean sukaldean pasa dut. Baina zer kantaldi eta zer giro. Zoragarria. Hauekin Alemanian ere izan naiz, Kuxkuxtu taldearekin. Autobusez. Municheraino. Oso-oso gustura.

Hemen lortutako diruarekin Iparraldean gauza asko egin dira; eskoletan, adibidez.

Errigoran ere aritu zara.

Errigora, edo Errigora Erriberri Elkarte, elikadura burujabetza eta euskararen erabilera Nafarroako Hegoaldean sustatzea helburu duen elkarte da. Eta Errigoran berdin, hasiera-hasieratik gaude. Inork ez zuen sinesten proiektuan eta begira azkenean. Etzi daukagu afaria Errigorako hornitzaileekin Seguran.

Beti dago jende eroa. Eta ni horietako bat naiz. Aurten unitate didaktiko bat argitaratuko da Ikastolen Elkartearen bitartez Errigoraren inguruan. Bestetik, Nafarroako herriren batean museo txiki bat jartzea da ametsa, produktu bakoitza nondik datorren eta bere historia ezagutzeko. Beti amesten, baina gero ikusten da ametsak bete egin daitezkeela. Eta polita da.

Hornitzaile askok beren produktioa handitzeko aukera izan dute ekimen honi esker. Eta Nafarroarekin lotura handiagoa izatea lortu da.

Ekonomikoki zer zifren inguruan hitz egiten gabiltza?

Urtean bi miloi euroko onurak dituzte. Bi kanpaina dira. Maiztze-ko kanpainan %25 Nafarroako Ikastoletara bideratzen da.

Eta gero ikusten ditugu pilotariak klaseak euskaraz ematen, dohainik. Martinez de Irujo, Gofij, Eulate... Eta, Tuteran,

futboleko emakumeen taldea euskaraz eta euskararen alde. Duela bi urte-edo kontzertuak antolatu ziren Tuteran, eta zer nolako giroa! Zer nolako jendetza. Gu tabernan kantari eta musika jotzen eta jendetza inguruan. Dena lepo. Hurrengo urtean alkateak ez zuen baimenik eman. Laguntzarik ez.

Esan nahi dudana da ez dela materiala edo dirua bakarrik. Sare indartsu bat sortu da. Kulturalki lortutakoa ikaragarria da. Harremanak.

Musikan ere ibilia zara. Erron-dailarekin Ordizian, esaterako.

Bai, betikoa. Telleria hil zen, okindegia zuen gizon berezia. Hil eta desagertzekotan zegoen errondaila, eta ni animatu. 93an sartu nintzen, baina errondaila 1960tik dabil martxan. Beti kaxondeoan, festan, pozik.

Europara bidaiak ere egin izan ditugu. 20 bat inguru gutxienez. Londres, Amsterdam, Italia, Brusela, Paris...

Ordiziako festetan Santiago egunean gazteak zain izaten ditugu. Goizeko 07:30ean, plazuelan. 200 bat gazte edo gehiago. Oso polita izaten da, ikaragarria! Behin La Pueblara gonbidatu gintuzten. Kasualitatez iritsi eta omenaldi bat zegoen antolatuta ikastolako zuzendaria hil zelako. Xalbadorren Heriotza abestu genuen. Aurrez prestatu gabekoa izan zen.

Eta orain musika eskolako ikaslea zara?

Bai. Kantuan. Lagun bat eta biok joaten gara.

Ez dakizu ezetz esaten, ezta?

Hori da; ez dakit, ez. Ezin dut.

Politikan ere ibili zara.

Bai, horretan ere bai. Lehenengo hauteskundeetatik hasi eta guz-



Itxaro eta Elorri ilobekin bazkari herrikoia prestatzen.



Bilobarekin ipuinak kontatzen.

tietan parte hartu dut zerrendetan, azken aldian izan ezik. Lehen aldiz Itsasondon parte hartu nuen, Joxe Mari Iturriozek irabazi zuenean. Ordutik aurrera Ordizian. 1987an zinegotzi izan nintzen, eta 1991n hauteskundeak irabazi genituen. Ni nindoan lehena zerrendetan. Baina betikoa: legez kanpo utzi gintuzten.

Politika herrigintzatik ikusten dut. Herritik eta herriarentzat. Gu asanblearioak gara eta izan gara, beti. Bestela ezinezkoa da. Guk herria defendatu dugu beti.

Momentu zailak ere izan dira?

Bai, horrelakoak ere izan dira, noski. Adibidez Yoyes hil zuenean ETAk, 1986an.

Ni 1987an sartu nintzen. Guardia Zibilak ere hil zituen batzuk kuartel inguruan eta beno, momentu zailak bizi izan ditugu, bai. Nik uste dut Ordizia herri esanguratsua izan dela alderdi guztietatik begiratuta, eta, batzuentzat, "banco de pruebas" bezalako zerbait izan dela hainbat kasutan.

Lagunek batzuetan esaten zidaten kaletik txistua botako zidatela, edo zakarkeriak esan. Baina inoiz ez dut horrelakorik bizi edo sentitu. Beste alderdi batzuetako jendearekin ere ibili izan naiz eta ondo moldatu naiz. EAjko batzokian eta guzti egon

izan naiz. Harremanak izan ditut alderdi politiko guztietako herri-kideekin eta ondo moldatu izan naiz, beti errespetuz.

Zaletasunak? Asko aipatu dituzu, baina...

LAB sindikatuan ere ibili izan naiz eskolako komitean, zortzi bat urtez. Nahiko urte gogorrek ere bai. Baina moldatu gara.

Errugbia gustuko duzu?

Bai, ikusteko. Eta lanerako ere bai. Begira, aurreko batean Leondik etorri ziren 12-13 urteko mutiko eta neskatoak. Afaria eman genien elkartean eta lotara Zerainera joan ziren. Iaz ez zen gurasorik etorri, aurreko dozena bat. Hurrengo urtean gehiago seguru. Primeran ibili dira eta.

Bidaiaetzea gustatzen al zaizu?

Bai, bai. Ikasleekin asko bidaia-tu dut, esaterako. Paris, Amsterdam... asko. Anekdotak asko ditut.

Italian ginela futbol txapelketako semifinala jokatu zen, Italia Alemaniaren aurka. Gure ikasleak Alemaniako kamisetarekin, Italian geundela eta.

Sekula ahaztuko ez duzun bidaiarik baduzu?

Askok. Baina ikasleekin egindakoak inoiz ez; astakeriak ere egin izan ditugu. Batzuk ezin dira kontatu. Baina beti zaindu izan gaituzte leku guztietan.

Zuk herriari asko eman diozu.

Zuri herriak asko eman dizu?

Bai, jasotako maitasuna zenbatezina da. Nik egindako lana balaratua izan da. Baina esan behar dut ondoan jende asko izan dudala, laguntzen. Mari Karmen, Agus eta beste hainbeste. Nik bezainbeste lan egin dute, hori horrela da, emakume hauek egin duten lana ikaragarria izan da. Aitortu egin behar zaie.

Nolako Euskal Herria amesten duzu?

Herri parte hartzailea amesten dut. Guztiok daukagu zer eman eta zer eskaini. Hori da harremantzeko modurik onena eta osasuntsuena.

Anekdotak bereziren bat kontatu nahi duzu?

Askok dira. Ez dakit. Baina Kontxi eta Benitaren omenaldian gertaturiko zerbait aipatuko dut. Abenduak 8, hotz ikaragarria. Sekulako bazkaria: entsalada, otarrainxkak, paella eta azpizuna. Eta ni lasai, baina kristoren hotza e, bagindoazen pote batzuk hartzera. Badaezpada aurretik otarrainxkak begiratzea bururatu zitzaidan. Eta hauek izoztuta. Egiten zuen hotza zela eta! Ezin deskongelatu salda egiten zuen hotzarekin. Hau marka!

Zure ikasgaia hautazkoa balitz, ziur denek hautatuko luketela.

Ekintza plana

Aurten ere, Gazteria Foroak (Urkiye Eskola, Altxaburua, Iturri Txiki Guraso Elkarte, gizarte langilea, hezitzaileak eta udal ordezkariak parte hartzen duten foroa) aurrera eraman du 2024-25 ikasturterako zehaztu zuten ekintza plana.



2 024ko urrian, lehen foroan, ikasturtean landu beharreko helburuak adostu genituen eta hauxe izan da ikasturterako ekintza plana:

HAUR GUZTIENTZAKO ARRETA ZUZENDU, GUZTIAK KONTUAN IZAN ETA BERAIEK ES-KUBIDEAK BERMATU.

Herriko haurrek izan ditzaketen beharrak atze-man.

Behar berriak zerrendatu, gazteria foroan aurkeztu eta irtenbideak aztertu.
Udalekuetan egoera zaurgarrian dauden haurren parte hartzea bermatu.
Eskolaz kanpoko ekintzak eta profesionalen dirulaguntza oinarriak
Asteazkenetako ekintza irekietara egoera zaurgarrian dauden haurrak bideratu.

Herri bizitzako ekintzetan haur guztien parte hartzea bermatu.

Eskola Kirolaren jarraipena egin
Itsasondoko jaietan haurren parte hartze aktiboa bultzatu
Tertulia literarioak
Euskararen erabilera indartu
Asteazkenetako kale ekintzen dinamikarekin jarraitu
Ostiraletako gaztelekuko ekintzen dinamikarekin jarraitu.
Eskolako ekintzak
Guraso elkarteak

HAURREN PARTE HARTZE AKTIBOA BULTZATU.

Sormen ekintzak antolatu.

Asteazkenetako dinamika.
Eskolako dinamika

Haurren kontseilua sortu

Haurren foroa sortzeko oinarriak eta aukerak aztertu.

NERABEAK ERAGILE AKTIBO IZAN DAITEZEN SUSTATU.

Herriko nerabeak gaztelekuko dinamikara lotu.

Gaztelekuko arautegia eta sarbide berriak ezagutarazi
Gaztelekuko plangintza beraiekin adostu.
Gaztelekua erabiltzaile gehiagotara zabaltu.

Herriko nerabeekin harreman zuzena izateko bideak topatu

Whatsapp taldea elikatu, eta sare sozialak indartu
Harreman berriak egiten saiatu adin gehiagotara iristeko

Herriko aldirikari eta web orrian beraiekin atala elikatu dezaten bultzatu.

Aldirikari kronograma partekatu beraiekin.
Ardurak banatu eta gaiak aukeratzeko irizpideak jarri.

Herrian dauden guneetan parte hartzeko aukerak landu

Herri bizitzan, kultura...
Jai batzordean

Gazte kontseilua sortu

Gazte kontseilua sortzeko oinarriak eta aukerak aztertu.

GAZTEEN KOMUNITATEKO PARTE HARTZEA SUSTATU ETA AKTIBATU.**Herrian dauden guneetan parte hartzeko aukerak landu (lanketak abiarazteko)**

Herri bizitzan, kultura...

Jai batzordean

GAZTERI FOROARI AHALIK ETA ETEKIN HANDIENA ATERA= EMAITZAK**Dinamika sistematizatu**

Egutegi bat zehaztu, bileretan landuko duguna zehazteko.

Foroko eragileen beharren inguruko lanketak

Beharrak atzeman eta erantzun posibleak eman

Sare sozialen eta pantailen inguruko formazioa eman

Zaintza eta xuxurlatzaile zerbitzuak eskaini

Oinherri/ gaztematika sarea baliatu

Oinherri zein gaztematikatik eskaintzen zaizkigun baliabideak ezagutarazi/erabili

Herri aldizkarian eta web orrian gazteriar buruzko atal finkoa sortu eta elikatu.

Foroan erabaki zein gai landu

Hezitzaileen zerbitzuari jarraipena eman

Luzapena aztertu

Foroko lanketak herriratu

Eragile bakoitzak bere espazioan partekatu

Herri aldizkarian eta web orrian gazteriar buruzko atal finkoa sortu eta elikatu.

Ikasturtean zehar zazpi bilera egin ditu foroak eta bertan ekintza planaren jarraipena egiten joan gara.

Ezarritako helburuetatik batzuk lehenetsi genituen:

- ZEOS programa: laz pantailen erabilpenaren inguruan hasi ginen lanketarekin jarraitu nahi izan dugu. Telmo Lazkano eta Maitane Ormazabalaren laguntzarekin 4 saio egin ditugu guraso, irakasle, hezitzaile eta orohar herritarrentzat. Beste saio bat eskaini zioten irakasleei. Oso balorazio positiboa egin dugu.
- Tertulia literarioak: Eskaintzarekin jarraitzeko tertulia literarioak eskola orduetan ematea proposatu da foroan.
- Eskola Kirolaren jarraipena: Hezitzaile al daketa dela-eta boluntarioekin bermatu da Eskola Kirolarekin jarraitzea.
- Udalekuak: 5-12 urte bitarteko umeentzako udalekuak antolatuko dira.
- Zaintza eta xuxurlatze zerbitzua: Irizpideak zehaztu ditugu ekintza bakoitzean zerbitzu hauek eskaini ahal izateko.
- Haur kontseilua sortzeko proposamena: Oinarriak zehaztu ditugu eta 2025-26 ikasturtean hasiko gara kontseiluaren dinamikarekin.



UDALEKUAK

ITSASONDOKO UDALEKU IREKIAK

5-12 urte bitarteko 41 hurrek eman dute izena Itsasondoko udaleku irekietan. 4 begirale eta praktikaldia egingo duten 3 begirale izango ditugu. Ekintza anitzak egingo dituzte: piraten eguna, irteerak, minbiziaren aurkako sentsibilizazioa, igerilekua... Aurreko urteetan bezala, Altzaga eta Aramako udalekuetako hurrekin elkartzeko dira egun batzuetan ekintza bateratuak egiteko.

Hemeroteca



ZIRKO TAILERRA (martxoak 7)

Zirko tailerra egin genuen Eskola Kiroleko topaketan barruan. Haur ugari parte hartu zuen ekintzan. Beti du arrakasta zirkoak!



EMAKUMEEN EGUNEKO BAZKARIA (martxoak 8)

Aurtengoan ere, Arbelaitz elkarteak izan zuten hitzordua herriko emakumeek. Aparteko giroan eta menu bereziarekin ospatu zuten Emakumeen Nazioarteko Eguna.



ZTANDAP (martxoak 8)

Emakumeen Nazioarteko Eguneko bazkariari amaiera umoretsua emateko asmoz Ztandap! izan genuen ikusgai. Bakarrikzeta bikaina, emakumeen gozagarrirako!




EMAKUMEEN EGUNEKO ELKARRETARATZEA (martxoak 8)

Jaia eta aldarrikapena izan genituen egun horretan, herriko emakumeak elkarretaratzea egin zuten plazan.



BELARRITAKOAK (martxoak 13/ apirilak 4/ maiatzak 8)

Artista ederrak ditugu herrian. Belarritakoak egiteko hainbat teknika ikasi dituzte egindako tailerretan. Emakume ugari bildu dira saioetan.



MASKULINITATE BERRIAK

(martxoak 18/ maiatza 22/ ekaina 19)

Gizentasunaz eta betetzen dituzten rolez hitz egiteko eta hausnartzeko parada izan dute Itsasondoko gizonek. 5 saio egin dituzte eta gai ezberdinak landu dituzte bertan.

GIPUZKOAKO MUS FINALA (martxoak 22)

EH Mus txapelketakoen gonbidapena onartu eta Itsasondon jokatu zen Gipuzkoako mus finaleko kanporaketa. 115 bikote aritu ziren buruz buru.



SORKUNTZA TAILERRA: BIHONDAKINEN TAILERRA (martxoak 28/ maiatzak 9)

Bihondakinei erabilpen berria emateko aukera izan genuen Organic Studioko kideekin. Bi tailer egin ziren eta hainbat material eta teknika erabiltuta sorkuntza berriak egin zituzten partaideek.

EMAKUMEEN COLLAGEA (martxoak 29)

Emakumeen arteko topaketa egiteko erabili genuen collage tailerra. Belaunaldi guztietako emakumeak bildu ziren sorkuntzarako eta harremantzeko prest.

MAITE FRANKOREN IPUIN KONTAKETA (apirilak 2)

Kontakizun ederrak eskaini zizkigun Maitek. Talde parte hartzailea elkartu zen haur txokoan istorio hauek entzuteko.

KIROL ASTEA (apirilak 3-12)

"Baltoro oinez eta hegan" hitzaldi ikus entzunezkoa (apirilak 3): Jende asko elkartu ez bazen ere, irudi eta kontakizun interesgarriak eskaini zizkiguten Mattin Iñiguez eta Jose Ramon Agirrek beraien proiektzioan.

MENDI IRTEERA (apirilak 12)

Kirol astearen barruan eta Eskola Kiroleko ekintza gisa, Itturri Txiki guraso elkarteak irteera antolatu zuen.

KIROL EGOKITU SAIOA (apirilak 11)

Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioko lagunekin egin genuen saioa. 4. 5. eta 6. mailako ikasleekin hainbat dinamika egin zituzten.

GINKANA HERRITIK (apirilak 23)

Asteazkenetako kale ekintzen dinamikaren barruan baina Aste Santuko oporretako programazioaren baitan ekintza berezia izan zuten herriko hurrek.

URKIKO FESTAK (maiatzak 3-5)

Jai giroan ospatu zituzten Urkiko jaiak bertaratuek. Eguraldia lagun izan ez bazen ere, ez zuen girorik zapuztu.



UEMAREN PARTE-HARTZE SAIOA (maiatzak 8)

Itsasondon euskararen egoeraren inguruko galdetegia zabaldu ostean, bertatik ateratako ondorioak eta aurrera begirako erronkak landu ziren herritarrekin.



EUSKARALDIKO TXAPA BANAKETA (maiatzak 9)

Ahobizi eta Belarriprest rola betetzeko txapa banaketa egin genuen mintzalagun taldearen eskutik.



GURUTZE GORRIKO ERREFUXIATUAK IJITTOEN AURKA (maiatzak 11)

Errefuxiatu lagun taldea izan dugu herriko futbol taldeko kideekin futbol partida jolasten. Giro aparta izan dute.



GRAFFITI TAILERRA (maiatzak 14)

Ekintza berezia izan zuten herriko gazteek. Garikoitz C. Muruaren eskutik, teknika batzuk ezagutu zituzten, eta, hainbat proba egin ondoren, graffiti txukunak sortu zituzten.



EUSKARALDIKO HASIERA-EKITALDIA (maiatzak 15)

Euskal Herriko txoko guztietan bezala, Itsasondon hasiera eman genion Euskaraldiari. Ekitaldi xumea izan arren, hunkigarria izan zen.



URKIKO ASTEBURUA (maiatzak 17-18)

Familia eta lagunartean, naturaz gozatzeko aukera paregabea dugu Urkiko asteburua. Aurtengo udaberriko zita apartekoa izan da.



"HETERO", UXUE ALBERDI ETA MAIALEN AKIZU (maiatzak 21)

Uxue Alberdi "Hetero" ipuin laburren liburuari buruzko azalpena ematen izan genuen. Maialen Akizu izan genuen saioa dinamizatzen.



EKOIZLE AZOKA ETA ARROPA AZOKA (maiatzak 16)

Eskuz egindako eta gertuko eskulanak izan ziren salgai azokan. Bigarren eskuko arropa trukatzeko aukera ere izan zen.

TIO TERONEN SEMEAK "HAURRESKOLARI" (maiatzak 16)

Azokaren osagarri, emanaldi bat eskaini nahi izan zen eta Tio Teronen semeak izan genituen. Jendetza ikaragarria bildu zen plazaan.

BERTSO SAIOA (ekainak 6)

Punta puntako bertsolariak eta aparteko gai jartzailea. Giro aparta izan genuen ere aurten bertso saioan. Adin ezberdinetako herritarak egon ziren ikusle.

HARRERA EGUNA (ekainak 18)

Aurten ere, herrira etorri direnei ongi etorria eman diegu. Herritarak berrie, herriko zerbitzuak erakutsi dizkiegu.

GARAGARDO AZOKA (ekainak 20)

Arbelaitz elkarteak antolatu du aurten ere, garagardo azoka. Giro aparta izan dugu asteburu guztian zehar.

ALARMA MOREA (ekainak 20)


Garagardoa laguntzeko musika pixka bat baino hoberik ez da, Alarma moreko neskak izan ditugu giroa alaitzen.

SAN JOANAK (ekainak 23)

Udako solstizioari ongi etorria egin diegu su inguruan dantzan. Sardina jana eta antzerkia izan ditugu eguna osatzeko.



liburu gomendia


BORRERO TXIKI BAT
Xabier Mendiguren

Zer sentitzen du Intxaurrendoko kuartelean bizi den haur batek? Nola pentsatzen du 1980ko hamarkadan Guardia Zibila kaserna izugarri hartan hazitako gazte batek? Beldur ote da gauetan? Jabetzen ote da beretarrek eragiten duten beldurraz? Ze harreman du handik kanpoko neska-mutilekin?

Besteren larruan sartzeko ariketa deigarri bat egin du egileak, eta enpatia horretatik pertsonaia konplexu bat sortu, gure herriaren itzalgune zenbait argia emateko, gure historiaren pasarte ezezagun batzuk agerira ekartzeko. Bere laburrean intentsitate handiko nobela da hau, teknika-aldaketa eta gidoiaren biragune ustekabekoei esker irakurlea erne mantenduko duena amaierara iritsi arte. Eta agian luzaz pentsaraziko diona gero, irakurritakoaz.

Mi nombre es
Emilia Del Valle

Isabel Allende


La última
princesa
 Alaitz Lezeaga

Autismoa
eta biok

Oihane Iriarte


La muy
catastrófica
visita al zoo
 Joel Dicker

Solas en el
silencio

Silvia Intxaurrendoko


Onin eta
Aintzirako
munstroa

Ibon Martin


Lohizulo
 Aitor Oñate

Iraileko
xazpi egun

Eneko Azedo


Amorante
frantsesa
 Miren Agur Meabe

Sira Itsas
azpiko abentura

Ibon Martin



Errezeta

San Juan Koka

Masa

500 g irin
 30 g legamia freskoa
 120 cm³ esne epela
 3 arrautza
 80 g azukre
 85 g gantz pomada
 Gatz goilarakada 1
 Banillaren esentzia
 Azaharraren esentzia
 Laranja baten arraildura

Pastel-krema

250 cm³ esne-esnea
 arrautza 1 eta gorringo 1
 80 g azukre beltz
 20 g arto-almidoia
 10 g kakao mikatz
 Banillaren esentzia

Pastel-kremarako, jarri bol batean esnea, banilla, arrautza, gorringoa eta azukre beltza. Irabiatu oso ondo, integratu arte, eta, gero, gehitu arto-almidoia kakao mingotsarekin batera (kakao alkalinoa erabili daiteke), eta irabiatu ondo; gero, pasatu ontzitxo batera eta jarri su leunean, loditu arte.



Pastel-krema loditu ondoren, beste ontzi batera pasatu eta paper filmez estali ondoren, erabat hozten utzi behar da.

Masarako: jarri legamia esne epelean, nahastu, estali eta utzi pausatzen minutu batzuetan, hazi arte.

Jarri irina mahai gainean koroa forman. Inguruan jarri gatza eta erdian azukrea, laranjaren azala, banillaren esentzia, laranjaren esentzia, arrautzak eta legamia aktibatuta eta hasi guztia integratzen. Likidoa xurgatu ondoren, gehitu gantza eta oratu opil leun bat lortu arte, pixka bat itsaskorra da, baina ez gehitu irin gehiegi. Ontzi batean jarri, estali, eta utzi bolumena bikoizten.

Atsedena hartutako masa gasgabetu ondoren, berriro estali 10 bat minutuz atsedean hartzen uzteko. Ondoren, aldeztu aurretik mantekatuta eta irinduta dagoen molde batean jarri.

Jarri pastel-krema moko kizkurra duen mahuka batean, eta masaren gainean sareta bat osatu; utzi atsedean hartzen berriro 30 minutuz. Sartu aurrez berotutako labera, eta bertan eduki gutxi gorabehera 25 minutuz edo zotz batekin zulatzean lehor atera arte.

Legamia freskorik ez baduzue, legamia lehorra erabili dezakezue.

Intxaurrak, fruta distiratsua, txokolatzeko txipak edo nahi duzuen edozein fruitu lehor gehitu ahal diozue.

Euskara txukuntzen

EUSKARA MAKARRONIKOA

A ke bai asmatu!
Ez dakizu, asike isildu.
Esertzeko? Si, eserita nago.

EUSKARA TXUKUNA

Baietz asmatu!
Ez dakizu, beraz isildu.
Esertzeko? Eserita nago eta.

AI ENE!!!!



Erriberako Euskararen Eguna, lehenengo aldia arrakasta handiz

2025eko maiatzaren 17an, Arguedasen Erriberako Euskararen Egunaren lehen edizioa ospatu zen. Egun osoan ehunka lagun bildu ziren euskararen eta eskualdeko kultur aberastasunaren aldeko jai giroan, aniztasuna eta konpromisoa ardatz.

Goizean goizetik, Arguedas kolorez eta musikaz bete zen. Erriberako hainbat dantza, musika eta kultur taldek kalea girotu zuten. Erriberako Euskararen Egun honek herrien, elkartearen eta boluntarioen arteko lankidetzaren elkargune bihurtu daitekeela erakutsi du: euskarak, kulturak eta Erriberako nortasunak indarrez egiten dute distira.

agenda

IRAILA

4: Podologoa, 10:00etan, Bizi Nahi elkartean
10: Jai batzordea, 17:30ean, bilera gelan
13-15: Urkiko festak
19, 20, 21: Itsasondoko festak
26: Pintxo potea

URRIA

9: Podologoa, 15:30etan, Bizi Nahi elkartean
3: Pintxo potea
8: Herri bizitza batzordea (jaien balorazioa)
10: Pintxo potea
17: Pintxo potea
Treba gazteak. Begirada kritikoa oinarritzko ikuspegia.
25-26: Urkiko asteburua
31: Gau beltza



telefono interesgarriak

Udaletxea	943 881170
• Gizarte Langilea	
• Udal Arkitektoa	
• Epaitegia	
Haurreskola	943 164831
Herri Eskola	943 887704
Arbel-Aitz elkartea	943 881339
Ibalur	722 366 173
Arrastoa Botika	943 882148
Medikua	943 007635
Kaxintane Taberna	606 756551
Nautiko Taberna	943 880012
Izaskun Hotela	943 880012
Izaskun Ileapaindegia	943 160285
Sasieta	943 161555
Traste Zaharrak	943 161590
Taxi (Ordizia)	678 035788

Ale honetan parte hartu dutenak:

Ainhua Barandiaran
Altxaburua Itsasondo
Amaia Ugalde
Danel Etxeberria
Erkuden Mendizabal
Iñaki Aizpuru
Itturritxiki guraso elkartea
Haur eskola
Hezitzaileak
Hitzar komunitatea
Nagore Etxeberria
Nerea Manzisidor
Ongizate lantaldea
Unai Aldasoro
Urkiye eskola

Itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

Herriatik kanpo bizi baldin bazara, eta,
korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure
etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin
harremanetan:

943 88 11 70
itsasondo2.0@itsasondo.eus

Lege gordailua:
SS-297-2010

ISSN:
2171-5572

GOGORARAZTEN DIZUEGU
HURRENGO ALEA
URRIAN
IZANGO DUZUTELA ETXEAN.



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA